

Bergara / 89

PENTEKOSTES JAIAK



OPARI-GAIAK.

KIROL TROFEOAK - SWAROVSKI KRISTALEZKO IRUDIAK

ERLOJU ETA BITXITEGI TAILER PROPIOAK

BITXIEN TRANSFORMAZIOA

BIDEKURUTZETA 16 - Tfnoa: 76 23 94 - BERGARA

BITXITEGIA ERLOJUTEGIA

ETXEBERRIA

JOYERIA

RELOJERIA

ARTICULOS DE REGALO

TROFEOS DEPORTIVOS - FIGURAS CRISTAL SWAROVSKI

TALLERES PROPIOS DE RELOJERIA Y JOYERIA

TRANSFORMACION DE JOYAS

C. BIDACRUZETA, N.^o 16 - Tfno.: 76 23 94 - BERGARA

Agurra

Guztiok itxaroten ditugu eta nahi ditugu, inork ez ditu zalantzan jartzen eta zorionez leialak, aldiroko puntualitatez, itzultzen dira. Beti bezala, gazteginak, alaitsuak eta oparotsuak, farre egitera, abestera, dantzatzereta eta saltoka egitera eramango diguten oparirik ederrenak ekarriz. Baita ere, bat egitera, konpartitza eta gogoratzera, arrazoi ezberdinak medio direla, opari hauen onuradunak ezin izango direnak, bereiziki, Sali, Julian, Panti, Josuren, Jose Mari, Iñaki, Joseba, Kanto, M.^a Eugenia, Miguel Angel eta Pedro, gizartearen justizia eta askatasunaren aldeko borrokan tinko mantentzeagatik gure artetik derrigorrez urrun egongo direnak. Agur.

Alkatea,

Jose Luis Elkoro

BERGARAKO UDALEKO JAI BATZORDEAK ANTOLATUTAKO EKINTZA ETA JAIEN EGITARAU OFIZIALA 1989

MAIATZAK 6, LARUNBATA

Gaueko 10,30etan:

Bergarako Aritzeta Abesbatzaren X Urtemuga ospatzen dela eta, Udal pilotalekuaren abesbatzen jaialdia ondoren- go talde hauekin:

Zegamako ORKATZ Abesbatza
Sant Sadurni d'Anoiako SANT SADURNI Abesbatza
Bartzelonako LLEVANT Abesbatza
Bergarako ARITZETA Abesbatza

MAIATZAK 11, OSTEGUNA

Arratsaldeko 7,30etan:

Novedades Aretoan «HIKA» antzerki taldeak «Alpargatas cuando llueve» lana antzeztuko du.

MAIATZAK 12, OSTIRALA

Arratsaldeko 8etan:

Martin Deunaren Enparantzan jaeie hasiera emango zaietxaplegu jaurtiketa eta Bitorianatxoren jeitsierarekin, Udal Musika Bandak alaiturik.

Ondoren, «Ikurriña» altzatuko da eta Udal Musika Bandarekin kalejira.

Arratsaldeko 8,15etan:

Udaletxetik ZANKO-TRANKO Hankaluzeen irteera.

Arratsaldeko 8,30etan:

Beheko geltokian instalaturiko Barrakan irekiko dira.

Ganeko 11etan:

Biarritzko «OLDARRA» dantza eta balet taldearen emanaldia.

Ordu berdinean San Martin de Agirre enparantzan «IZADI» taldearekin dantzaldia.

Dantzaldian zehar «Zenen mekanikoa» egongo da, jarraitzaileek beraien trebetasunak azaldu ditzaten.

MAIATZAK 13, LARUNBATA

Kirol Ihardunaldiak

Goizeko 9etan:

Agorrosingo pistetan «Deba Arroa» Atletismo Txapelketa.

San Martin Enparantzan benjamin mailan Futbol salako eskolako txapelketaren finala.

Labegaraietako Polikiroldegian, haururreko mailan, Gipuzkoako txapelketaren finalerdia (iraupena 1,30).

Goizeko 10etan:

San Martin enparantzan benjamin mailan Eskubaloiko eskolako txapelketaren finala.

Goizeko 11etan:

San Martin Enparantzan Benjamin mailan Saskibaloiko eskolako txapelketaren finala.

San Martin Enparantzan Alebin mailan Futbol salako eskolako txapelketaren finala.

Eguerdiko 12etan:

San Martin Enparantzan haur mailako Futbol salako eskolako Txapelketaren finala.

Labegaraietako Polikiroldegian haur mailan Gipuzkoako txapelketaren finalerdia (iraupena 1,30).

Eguerdiko 13,45etan:

San Martin Enparantzan eskolako txapelketaren sari banaketa.

Goizeko 6etan:

Sokamuturra herriko kaleetan zehar.

Goizeko 9etan:

Marrazki eta Margoaren VIII Lehiaketa, haize agerian eta 14 urtelik beherakoentzat.

Goizeko 11etan:

Eskolarteko XVIII XAKE Txapelketa Zabalotegiko Xake Taldearen lokalean; ondoren eskolako txapelketaren finala.

Eguerdiko 12etan:

San Martin Enparantzan «TRAPU ZAHARRA» antzerki taldeak «El Vengador enmascarado» lana antzeztuko du.

Eguerdiko 1etan:

Fraiskozuri enparantzan Lokatzako txirrindulari taldeen aurkezpena.

Arratsaldeko 3,30etan:

Gorlarako Motoziklista igoera.

Arratsaldeko 4etan:

Udaletxeko Pleno Aretoan XAKE taldeak antolaturiko partida azkarren Euskadiko IV Txapelketa.

Arratsaldeko 4,30etan:

Udal pilotalekuau izugarritzko pilota partiduak eskuz.

Arratsaldeko 5etan:

Agorrosingo futbol zelaian BERGARA-LAZKAO futbol partidua.

Arratsaldeko 5,30etan:

Matxategi poligonoan LOKATZA Txirrindulari Elkarteak antolaturiko eskolako txirrindulari lasterketa.

Arratsaldeko 6etan:

San Martin Enparantzan «Sebastopoleko Titiriteroek» antzerki-tailerra montatuko dute eta gero haurrentzako kalejira eskainiko dute.

Arratsaldeko 8etan:

«Buruhaundi eta Erraldoien» kalejira Txistulariek lagundurik.

Gaueko 11etan:

San Martin enparantzan BERAKATZ-BAND taldearekin dantzaldia.

Eta aurreko gauean Zezena dominatzea lortu ez zuten hain trebeak ez direnentzako beste aukera berri bat dantzaldian.

Ordu berdinean: Bideberrin ROCK jaialdia ondorengo talde hauekin:

B.A.P.
ESKORIATZA
REINCIDENTES

MAJATZAK 14, IGANDEA

Goizeko 8etan:

Bergarako kaleetan zehar sokamuturra.

Goizeko 9etan:

Txitularien udal Bandarekin Alborada.

Ordu berdinean, 1. eta 2. mailako afizionatueng «IV Pentekostes Saria» txirrindulari lasterketaren irteera, ondorengo ibilbide honekin:

Bergara, Osintxu, Bergara, Elorregi, Oñati, Udana, Legazpia, Zumarraga, Deskarga, Antzuola, Bergara, Osintxu, Bergara, Antzuola, Deskarga, Zumarraga, Legazpia, Oñati, Elorregi, Bergara.

HELMUGA: Espoloian, iristeko ordua 11,50.

Ordu berdinean: Xake Txapelketa taldeka
«BERGARAKO HIRIA SARIA»

Goizeko 11etan:

San Pedro Apostol Eleizan Pentekostes Meza.

Goizeko 11,30etan:

San Martin Enparantzan Haurren mailan dantza askatuanen Euskadiko txapelketaren kanporaketak. Lehendabiziko 10 bikoteak klasifikatuko dira.

Eguerdiko 12etan:

ERROTALDE Kultur Etxearen inaugurazio ofiziala.
Ondoren, IV Literatur Lehiaketako irabazleei sari banaketa eta ondorengo erakusketa hauen irekiera:

Behe solairuan «Bergarako Artisten Erakusketa», pintura, eskultura, ceramika, e.a.

2. Solairuan «V Argazki lehiaketa Bergara Hiria» Erakusketa.

Eguerdiko 12,30etan:

Santa Ana parkean Udal Musika Bandaren kontzertua ondorengo egitarau honekin:

«Maestros cantores».....	Korporazioen Marixa.....	R. Wagner
«Oberon»	Obertura	Weber
«Ezpata-Dantza».....	M. Gz. Bastida
«MY FAIR LADY»	Selección.....	F. Loewe

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

Arratsaldeko 4,30etan:

Udal pilotalekuau izugarritzko pilota partiduak eskuz.

Arratsaldeko 5,30etan:

San Martin Enparantzan Euskadiko Bikoteka Dantza Aska-tuaren XII. Txapelketa, 14 urtetik beherakoentzat.

Arratsaldeko 8etan:

«Musika Eskola Fanfarrea».
«Patraka-Matraka» Hankaluzeen irteera.

Gaueko 10etan:

San Martin Enparantzan, Suzko Zezena.

Gaueko 11etan:

Espoloian «NERVION» taldearekin KANP dantzaldia.
Ordu berdinean: San Martin enparantzan «IZAR» taldearekin dantzaldia.
Dantzaldian zehar eta zentzazio berriak nahi dituztenen-tzako SURFeko taula mekanikoa.
Ordu berdinean: Bideberrin ROCK jaialdia ondorengo talde hauekin:
«Angiolillo»
«Heriotza»
«Xementerio»

MAIATZAK 15, ASTELEHENAK

Goizeko 5etan:

San Martin Enparantzan salda eta txorizoa.

Goizeko 9,45etan:

Betiko ibilbidearekin sokamuturra.

Goizeko 11etan:

Seminarioko patioan PISTA LIBREren eskuistik KARS ko-teak, putzezko Gazteluak (Iraupena 3 ordu)

Goizeko 11,30etan:

Udal Musika Bandarekin kalejira.

Goizeko 12,30etan:

Novedades Aretoan Udal Musika Bandarekin kontzertua ondorengoko egitarau honekin:

«El Barbero de Sevilla» Obertura Rossini
«Jauntxuba» Preludio Vasco Valdés
«Danza Macabra» Poema Sinfónico Saint-Saens
«Caribbean Concerto» Suite Kees Vlak
I.- St. Eustatius
II.- Saba
III.- St. Maarten

Zuzendaria: Alfredo Oz. Chirlaque

Arratsaldeko 4etan:

Seminarioko patioan instalaturiko haurrentzako parkea-ren jarrai-pena (Iraupena 3 ordu).

Arratsaldeko 4,30etan:

Udal pilotalekuau izugarritzko pilota partiduak.

Arratsaldeko 5etan:

EGUZKI Taldeak antolaturik, estazioko zubitik Santa Mari-nako Zubirainok balsa lasterketa, saria 30.000 pta.

Arratsaldeko 6etan:

Gaztetxean futbolin txapelketa.

Arratsaldeko 7etan:

«Bergara Hiria I. Mus Txapelketa» Udaletxeko arkueetan. Parte hartuko dute Udaletxeen izena ematen duten lehen-dabiziko 32 bikoteek.

Izenemateak Maiatzaren 8tik 12ra bitartean.
Ordutegia: Betatik 15 orduak arte.
Prezioa: 300 pta. bikoteko.

Sariak:

1.goa.— Txapelak eta Antxonin 2 pertsonantzako afaria.
2.a.— Trofeoak eta Txanpan kaxa bat.

Gaueko 11etan:

Espoloian TARANTELÀ Orkestarekin KAMP Dantzaldia.
Ordu berdinean San Martin Enparantzan LISKER taldearekin dantzaldia eta bustitzea nahi dutenentzat SURF taularen instalazioa egongo da.
Ordu berdinean: Bideberrin ROCK jaialdia ondorengo talde hauekin:

ANTIRREGIMEN
DDDP
ENFERMOS

Egun guztian zehar «Los Incansables» txarangak Bergarako kaleak alaituko ditu.

Goizeko 10etatik arratsaldeko 3ak arte:

Barraketako bidaiaik 25 pta. kostatuko dira; berdin larunbatean arratsaldeko 4etatik gaueko 9ak arte.

MAIATZAK 16, ASTEARTEA

KUADRILEN EGUNA

Goizeko 4etan:

San Martin Enparantzan salda eta txorizoa.

Goizeko 10etan:

Ohizko ibilbidearekin sokamuturra.

Goizeko 11etan:

San Pedro Eleizaren paretan POL-POL taldeko eskaladoreen erakusketa.

Eguerdiko 1etan:

Aranzadi Ikastolako dantzarien eta XAMATZ dantza taldearen emanaldia.

Arratsaldeko 2,30etan:

San Martin Enparantzan bazkari herrikoia.
Bazkalondo trikitilariek eta «Los Incansables» txarangak alaituko dute.

Arratsaldeko 4,30etan:

Udal Pilotalekuaren pilota partidu bikainak.

Arratsaldeko 6etan:

Kuadrilen arteko jokuak eta Gaztetxeen billar txapelketa.

Gaueko 11etan:

San Martin Enparantzan «EGAN» taldearekin dantzaldia.

Gaueko 12etan:

San Martin de Agirre Enparantzan konzentrazioa Bitorianatxoren igoerari hasiera emango zaiolarik.
Egun guztian zehar trikitilarien 2 bikote ospetsuk eta «Los Incansables» txarangak ihardungo dute.

MAIATZAK 19, OSTIRALA

Gaueko 11,50etan:

Txbisto Dantzailekuaren ALASKA+DINARAMA musika taldeak EUSKADIn emango duen denboradako 1. emanaldia eskainiko du.

MAIATZAK 21, IGANDEA

EUSKAL JAIA

Eguerdiko 12etan:

Karate Modernoko «Bergara Hiria I Saria» E.P.K.A. Pilotalekuaren. Sarrera dohainik.

El uso del cristal



*Cuando de él bebes, es genial
si lo tiras es igual
pero cuando te corta es fatal*

MUTIKOTAKO KONTUAK

Ez ga hain aspaldikuak pe, baiña gure mutikotako (1955-62...) gauzak akordatzerakuan konturatzen ga urte gutxian bizimodu zenbat aldatu dan. Igual asko esatia izango da, baiña esan leike azkenengo 30 urtetan bizimodu gehixao aldatu dala aurretik mendetan baiño. Oiñ 40 urten bueltan gabitzenok bizimodu horren azkenengo ostikarak ikusteko suertia izan dogu.

Uberakua naizenez hemendik ikusten nittuan moduan kontauko ditut gauzok. Izan be orduan Bergara oso urriñ zeuan, oingo mutikuendako Donostia baiño urriñago. Paskuelan eta San Martiñetan bakarrik joaten gjñan kalera, oiñez, dotore dotore jantzitta. Barraketan ibilti, zirkua eta suzkurruberak ikusi, eta espezial. Urte guztian goguan izaten gjñuzen egun haretako goraberak.

Gurelako bi persona klase zeren orduan: baserrittarrak eta kaletarrak. Baserrittarrak = langilliak; bizimodu etaratzeko uda eta negusouan eta basuan lanian jarduten zebenak. Kaletarrak = nagixak, fabrika joan eta (ze lan egin leike teillatupian, hanka geldixan? hori eztok lana) jornal majua kobratzen zebenak. Oiu, mutikuak, Uberako frontoian pelotan, eta kaletarrak bizikletan aillegatzen zien (asko parrillian hanka zabalik) eta pelotan hasten zien gure buru gaiñetik dinbi eta danba, leku «geure borondatez» libratzen gjñuan arte. Errekonduan be ikusten gjñuzen «Kangrejuak hartzen», erdera hots baten,

Don Jose izan zan nere lelengo maixua. Donostiako erdelduna, ahuntza baiño zoruagua. Eskola denporia liburu bat irakurtzen, sekulako ezpan mobimentuakin, mormoxetan bezela, emuten zeban, oposiziñuak preparatzen ero, gero jakin gjñanez. Gora, maisuetxera be sarri joaten zan gu bakarrik lagata eta orduan hasten zan dinbirri danbarria eskolan. Laster bueltatzen zan zaratarra eta kastiguak etzien izaten edozein modutakuak: eskollai barrutik 50 buelta aintxitxika emutia, esate baterako. Maistruak bizikletia eskolan eukitzen zeban eta behin, Markiko Rafael uste dot zala, «kastigua kunplitzen» dabilela, katlatzen jako frenua poltsikuan eta draunba, bizikletia lurrera, sekulako aberixia egiñaz.

Beste behin, —hau be Markittarren bat zan— kastigau nahi zeban eta preguntau zotsan: «¿Como se dice "soy un burro" en vasco?» eta «astua haiz». «Pues dilo 100 veces». Eta mutikua serixo, serixo: «astua haiz, astua haiz, astua haiz...».

Realak galduztako bixamonetan ziero pipermindduta etortzen zan. Fubolzale amorratua zan. Abarketekin egoten zan eta euri egunetan errekreo denporan bixkarrian eruan bihar izaten giñuan frontoera. Frontoi baztarrian potzuak egoten zien eta guk, katiuska haundixeñin, billur gutxi. Fubolistak pe halamoduzkuak gu, eta akordatzen naiz zela behiñ balola potzu erdixan gelditu zan. Maixua aterpiari zain, eta badoia bat txutatzera, kale egiten dau eta maixua baiñauta, goittik beraño. Gero etzan giro.

Garizumia ailegatzen zanian, txirikillan, kamiñuan. Neskak mutillen kontra. Abar pilla jartzen zan kamiñuan aldenik alden, auton bat zetorenian (gutxitan) erretirau, eta pasautukan atzera jarri. Deporte polita baiña peligroso xamarra. Txirikilla begittik sartu, kelderolakin buruan jo, eta holakuak sarri izaten zien. Frailliak eta abadiak pe oingo liburu saltzaillien moduan ibiltzen zien eskolaik eskola, baiña abadegai billa. Infernura juateko arriskuan zenbat beltz eta txino dagon bautizatzeko, seminaixuan zelako kanpo fubolak zeuzken eta holakuak kontatzen zoskuen, eta bat baiño gehixao joan giñan.

«Misiñuak» eta «ejerziziak» pe goguan hartzeko modukuak izaten zien. Aste Santuko atsaldetan (goizetik pe bai, nolzbaitten) auzo guztiak zeukan elizara joateko obligaziñua. Fraidle sermoilarixak etortzen zien, kaputxinuak ero pasionistak, jeneralian. Eta zer zan haura: hango sua, garra, txingarra eta ifernuan kiskaldu biharra. «Sartu dezue, ezta, nolzbait nahi gabe behatz punta sutan, badakizue nolako miña eta oiñazea ematen duen. Pentsa ezazue gorputz guztia sartzen duzuela, ba jakin ezazue, anai maiteok, min hori eguzki epelak ematen duena baino txikiagoa dela infernuko suarekin konparatuta eta hau pekatu mortal bakar batekin hiltzen bagera». Dardaraz urtetzen giñuan gehixago pekatuik ez egitteko intenziñuakin, pentsamentuzkuak ebitatzeko sistimia asmau nahian.

Gorputsi bezperia izaten zan urteko eskola egun onena: Ixak batzen emuten giñuan eguna, Ubera kalian eta elizara bidian prosoziñorako botatzeko. Hartu esku karro pare bat eta igeteixak, eta ixak eta aixel-buztanak batzera Idarra aldera ero norabaitt. Maillukixak jan, matxingarratzak txupau, beste oker batzuk pe egiñ eta primeran; karrua betetakuan Uberara.

Udako domeketan Boluko presan baiñatzen ero kikara apurtzen emuten giñuan denporia, baiña guri kilikili gehixen egilten zoskun dibersiñua Marijustai keixak ero madarixak harrapatzia zan. Ezkututik narraska joan, aurrekuak kontraseñia emoten zebanian ornia pasau..., baiña gehixenetan zain egoten zan Marijusta eta kejiakin be joan zan abadiagana: «Artizko Balbiñon semian semia eta beste lau. Estudiante, tunante, kapapian gitarrria joten», esanaz.



Orduko gure ikuskizun nausixa bizikleta karrerak zien. Bueltakune-ra joaten giñan eta Elgetatik berakuan baten bat errebuelta hartu ezin-dida sasi artera ero basuan bera joaten hazan, demasa zan. Aranzabal (eta geruago Askasibar) iges eindda pasatzen zanian moduan. Ero «Vuelta España»ko karabania.

Izan be kamiñuan ero kamiño inguruau zeuan orduko bizimoduua. Bizikletak mantso mantso lanera eta lanetik etxera. Erlojua Inazio Plako zan, bostetan bere furgonetia. Inazio Loko enplemeren bat eittera norabaitera, mobiletian, bariak baiño polikixago, eta oiñezkuak ugari, berbetarako gogo onakin eta prixa barik. Guk souak geunzkan kamiñonduan eta esaeria zan kamiñonduan, igualian, lanerako lagun bat gehixao bihar izaten zala, denpora erdixa barriketan joaten zalako.

Kangrejutan ero eskaillutan ero aittakin sareiek amorrainetan genbitzenian, motor zaratatxo bat entzun orduko sasi artian ezkutatzen giñan guardia zalakuan. Billur haundiha gontsan, ezlakitt zein «denunziau» eiñ ei zeban eta. Guak ez genkixen zer esan nahi zeban berba horrek, baiña zeozer oso txarra zala bai.

«Miope», kamiñeruen jefia, be hor ibiltzen zan basarritarren bat erreka ero kamiño ertzeko haltzen bat ebagitzen noiz harrapauko, sekulako bronkia botatzeko prest, hau be «denunziau» berbiakin beti. «Miope» deitzen gontsan motorran matrikulak MOP jartzen zebalako. Txori-malo haurra beti eskupekon bat zeini kobrak ibiltzen zan, denunzia barkatze aldera.

Goizian eta eguardixan astuak kamiñua betian, kalera esniekin eta tratuakin. Orduan be bazien «turbo»dunak eta karrakak. Gure ama beti kejatzen zan danak pasatzen zebalako. Akzidentiak pe bai banakia: Elortza Boluko aldapan astuak izotzetan patinau, esne errekiak eta tomate mordua lurrian, eta holakuak. Kotxeikin gutxi, baiña Atxoteiko Juanitak izan zeban bat galanta: Badoja San Juango rektan asto gaiñian, joten dau bete betian kotxe batek eta astua eta bixak sasira, hankaz gora. Kotxedunoi gelditu eta han topau ei zeban andria sasi artian jaiki ezin-dida eta hola esan ei zotsan honek gizonai: «Anda con cuidao, e, por poco me matas el burro».



LA CAJA COMPARTE TUS FIESTAS

La Caja de Guipúzcoa vive las fiestas junto a ti.

Participando en la alegría de estos días tan especiales.

Disfrutando del ambiente.
Por tradición.

Algo que, como buenos guipuzcoanos, todos llevamos muy dentro.

¡Felices Fiestas!

Gipuzkoako Kuxak zurekin bizi nahi ditu jaiak.

Egun berezi-berezi hauetako alaitasun-giroan parte hartu.

Giro horretaz gozatu.
Tradizioarengatik.

Gipuzkoar jator garenez, guztiok barrenean daramagun zerbaiz bait da hori.

Festa Zoriontsuak!

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPÚZCOA

Saludo

Todos las esperamos y deseamos, nadie las cuestiona, y afotunadamente fieles y con puntualidad meridiana, vuelven. Como siempre joviales, alegres y generosos, portando los más hermosos obsequios que nos permitirán reír, cantar, saltar y bailar. También armonizar, compartir, rememorar a aquellos que por distintas razones no podrán beneficiarse de estos dones, y muy especialmente a Sali, Julián, Panti, Josuren, Jose Mari, Iñaki, Joseba, Kanto, M.ª Eugenia, Miguel Angel y Pedro que por mantenerse firmes en su lucha por las libertades y justicia social estarán forzosamente apartados de nosotros. Agur.

El Alcalde,

Jose Luis Elkoro

PROGRAMA OFICIAL DE LOS ACTOS Y FIESTAS ORGANIZADOS POR LA COMISION DE FESTEJOS DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BERGARA 1989

SABADO, 6 DE MAYO

10,30 de la noche:

Con la celebración del X Aniversario de la Coral Aritzeta de Bergara festival coral en el frontón municipal con los siguientes grupos corales;

ORKATZ Abesbatza de Zegama
Coral SANT SADURNI, de Sant Sadurní d'Anoia
Cor LLEVANT de Barcelona
ARITZETA Abesbatza de Bergara

JUEVES, 11 DE MAYO

7,30 de la tarde:

En el Salón Novedades, el grupo de teatro «HIKA» interpretará la obra «Alpargatas cuando llueve».

VIERNES, 12 DE MAYO

8 de la tarde:

Comienzo de las fiestas en la Plaza San Martín de Agirre con el lanzamiento del chaflero y bajada de Bitorianatxo, amenizada por la Banda Municipal.

A continuación se procederá a la izada de la «Ikurriña» y al pasacalle amenizado por la Banda Municipal de música.

8,15 de la tarde:

Salida del grupo de zancudos ZANKO-TRANKO desde el Ayuntamiento.

8,30 de la tarde:

Apertura de la feria de atracciones situada en la estación de abajo.

11 de la noche:

Actuación del grupo de danzas y balet «OLDARRA» de Biarritz.

A la misma hora en la Plaza San Martín de Agirre verbena a cargo del grupo «IZADI».

Durante el transcurso de la verbena habrá un «Toro mecánico» para que los adeptos prueben sus habilidades.

SABADO, 13 DE MAYO

Jornada Atlético Deportiva.

9 de la mañana:

Campeonato de Atletismo «Cuenca del Deba» en las pistas de Agorrosin.

Final del torneo escolar de Fútbol Sala en Categoría benjamín en la Plaza San Martín.

Semifinal en la categoría preinfantil del campeonato de Guipúzcoa en el Polideportivo de Labegaraieta (duración 1,30 h.).

10 de la mañana:

Final del torneo escolar de Balonmano categoría benjamín en la Plaza San Martín.

11 de la mañana:

Final del torneo escolar de Baloncesto Categoría Benjamín en la Plaza San Martín.

Final del torneo escolar de Fútbol Sala Categoría Alevín en la Plaza San Martín.

12 del mediodía:

Final del Torneo escolar de Fútbol Sala Categoría infantil en la Plaza San Martín.

Semifinal en categoría infantil del campeonato de Guipúzcoa en el Polideportivo Labegaraieta (duración 1,30 h.).

13,45 del mediodía:

Entrega de premios del torneo escolar en la Plaza San Martín.

6 de la mañana:

Sokamuturra por las calles del pueblo.

9 de la mañana:

IX Concurso infantil de dibujo y pintura al aire libre para menores de 14 años.

11 de la mañana:

XVIII torneo escolar de ajedrez en el local social de ajedrez Torre Zabalotegi. A continuación final del campeonato escolar.

12 del mediodía:

Actuación del grupo de teatro «TRAPU ZAHARRA» interpretando la obra «El vengador enmascarado» en la Plaza San Martín.

1 del mediodía:

Presentación de los equipos ciclistas del Lokatza en la Plaza Fraiskozuri.

3,30 de la tarde:

Subida Motociclista a Gorla.

4 de la tarde:

En el Salón de Plenos del Ayuntamiento. IV Campeonato de Euskadi de partidas rápidas por equipos organizado por «XAKE» taldea.

4,30 de la tarde:

En el frontón municipal espectaculares partidos de pelota a mano.

5 de la tarde:

En el campo de fútbol de Agorrosin gran partido de fútbol BERGARA-LAZKANO.

5,30 de la tarde:

En el polígono Matxiategi, carrera ciclista escolar organizada por el Club ciclista LOKATZA.

6 de la tarde:

En la Plaza San Martín los «Titiriteros de Sebastopol» montarán un taller de teatro y una posterior kalejira infantil.

8 de la tarde:

Paseo de «Gigantes y Cabezudos» con el acompañamiento de la banda de txistularis.

11 de la noche:

En la Plaza San Martín baile amenizado por el grupo BERAKATZ-BAND.

Y para los ya menos adeptos, que no consiguieron dominar al Toro la noche anterior, otra sesión para poder domarlo durante el transcurso de la verbena.

A la misma hora: festival ROCK en Bideberri con la actuación de los siguientes grupos:

B.A.P.

ESKORIATZA

REINCIDENTES

KRAS

KRAS

KRAS KRAS KRAS TRES

HOY NO ME
IMPORTA ...

KRAS

PERO

MAÑANA
ME CORTA



DOMINGO, 14 DE MAYO

8 de la mañana:

Sokamuturra por las calles de Bergara.

9 de la mañana:

Alborada por la Banda municipal de txitularis.

A la misma hora salida de la prueba ciclista para aficionados de 1.^º y 2.^º «LIV Gran Premio Pentecostés con el siguiente recorrido y horario:

Bergara Osintxu, Bergara, San Prudencio, Oñati, Urdan, Legazpia, C/ Zumárraga, Descarga, Antzuola, Bergara, Osintxu, Bergara, Antzuola, Descarga, C/ Zumárraga, Legazpia, Oñati, San Prudencio, Bergara.

META.— Espolón, hora de llegada 11,50.

A la misma hora: Campeonatos de Ajedrez por equipos.

«GRAN PREMIO VILLA DE BERGARA»

11 de la mañana:

En la Iglesia parroquial de San Pedro Apóstol Misa solemne de Pentecostés.

11,30 de la mañana:

En la Plaza San Martín, eliminatorias del campeonato de Euskadi Infantil de baile al suelo. Se clasificarán las 10 primeras parejas.

12 del mediodía:

Inauguración oficial de la casa de Cultura de ERROTALDE.

A continuación entrega de premios a los vencedores del IV concurso de literatura en Euskera y apertura de las siguientes exposiciones:

Planta baja «Exposición de Artistas Bergareses» de pintura, escultura, cerámica, etc.

En la 2.^a planta «Exposición V Argazki lehiaketa Bergara hiria».

12,30 del mediodía:

Concierto de la Banda Municipal de música en el parque de Santa Ana con el siguiente programa:

«Maestros cantores».....	Marcha de las Corporaciones.. <i>R. Wagner</i>
«Oberon»	Obertura <i>Weber</i>
«Ezpata-Dantza»..... <i>M. Gz. Bastida</i>
«MY FAIR LADY».....	Selección..... <i>F. Loewe</i>

Director: Alfredo Oz. Chirlaque

4,30 de la tarde:

En el frontón municipal se jugarán espectaculares partidos de pelota a mano.

5,30 de la tarde:

En la Plaza de San Martín, XII Campeonato de Euskadi de baile al suelo para parejas de hasta 14 años.

8 de la tarde:

«Musika Eskola Fanfarrea».

Salida del grupo de Zancudos «Patraka-Matraka».

10 de la noche:

En la Plaza San Martín de Agirre, Toro de Fuego.

11 de la noche:

Baile CAMP con la orquesta «NERVION» en el Espolón.

A la misma hora: Baile a cargo del grupo «IZAR» en la Plaza San Martín.

Durante el transcurso del baile y para los que quisieran sentir nuevas sensaciones habrá una tabla mecánica de SURF.

A la misma hora: Festival ROCK en Bideberri con los siguientes grupos:

«Angiolillo»

«Ileriotza»

«Xementerio»

LUNES, 15 DE MAYO

5 de la mañana:

Caldo y chorizo en la Plaza San Martín.

9,45 de la mañana:

Sokamuturra con el recorrido tradicional.

11 de la mañana:

Coches CARS, Castillos hinchables a cargo de PISTA LIBRE en el patio del Seminario. (Duración 3 horas).

11,30 de la mañana:

Pasacalle de la Banda Municipal de Música.

12,30 de la mañana:

Concierto de la Banda Municipal de Música en el salón Novedades, con el siguiente programa:

«El Barbero de Sevilla»	Obertura	<i>Rossini</i>
«Jauntxuba»	Preludio Vasco	<i>Valdés</i>
«Danza Macabra».....	Poema Sinfónico	<i>Saint-Saens</i>
«Caribbean Concerto»	Suite.....	<i>Kees Vlak</i>
I.-	<i>St. Eustatius</i>	
II.-	<i>Saba</i>	
III.-	<i>St. Maarten</i>	

Director: Alfredo Oz. Chirlaque

4 de la tarde:

Continuación del parque infantil instalado en el patio del Seminario. (Duración 3 horas).

4,30 de la tarde:

Espectaculares partidos de pelota en el frontón municipal.

5 de la tarde:

Carrera de balsas organizada por EGUZKI, desde el puente de la estación al puente de Santa Marina, con un premio de 30.000 ptas.

6 de la tarde:

Campeonato de Futbolín en el Gaztetxe.

7 de la tarde:

«I Campeonato de Mus Villa de Bergara» en los arkupes del Ayuntamiento. Tomarán parte las primeras 32 parejas que se inscriban en el Ayuntamiento.

Inscripciones: de 8 a 12 de mayo.

Horario: de 8 a 15 horas.

Precio: 300 ptas. por pareja.

Premios:

1.º— Txapelas y cena para 2 personas en el Antxoni.

2.º— Trofeos y caja de Champán.

11 de la noche:

Baile CAMP con la Orquesta TARANTELA en el Espolón. A la misma hora en la Plaza San Martín baile con el conjunto LISKER, acompañado de la instalación de la tabla de SURF para quienes se quieran dar un chapuzón.

A la misma hora: Festival ROCK en Bideberri con los siguientes grupos:

ANTIRREGIMEN

DDDP

ENFERMOS

Durante todo el día la txaranga «Los Incansables» animará las calles de Bergara.

Desde las 10 de la mañana hasta las 3 de la tarde: Los viajes en las barracas costarán 25 ptas.; al igual que el sábado de 4 de la tarde a 9 de la noche.

MARTES, 16 DE MAYO

DIA DE CUADRILLAS

4 de la mañana:

Caldo y chorizo en la Plaza de San Martín.

10 de la mañana:

Sokamuturra con el recorrido habitual.

11 de la mañana:

Exhibición de los escaladores del POL-POL en la pared de la Iglesia de San Pedro.

1 del mediodía:

Actuación de los dantzaris de la Ikastola Aranzadi y del grupo de danzas XAMATZ.

2,30 de la tarde:

Comida popular en la Plaza San Martín. La sobremesa será amenizada por los trikitilaris y la txaranga «Los Incansables».

4,30 de la tarde:

Interesantes partidos de pelota en el Frontón Municipal.

6 de la tarde:

Juegos populares intercuadrillas, y campeonato de billar en el Gaztetxe.

11 de la noche:

Verbena a cargo del conjunto «Egan» en la Plaza San Martín.

12 de la noche:

Concentración en la Plaza de San Martín de Agirre, procediéndose a la subida de Bitorianatxo.

Durante todo el día, actuarán 2 parejas de afamados Trikitilaris y la txaranga «Los Incansables».

VIERNES, 19 DE MAYO

11,50 de la noche:


1.ª actuación de la temporada en EUSKADI del grupo musical ALASKA + DINARAMA en la Sala Txibisto.

DOMINGO, 21 DE MAYO

FIESTA VASCA

12 del mediodía:

«I open Villa de Bergara» de Karate Moderno E.P.K.A. en el Frontón. Entrada libre.



FESTA-GIROAN ERE
GURE HERRRIAREKIN GAUDE BETI



